

Curriculumaren inguruan hitz egiten denean gutxitan agertzen da parte-hartzearen gakoa. Gutxitan aipatzen da gai honek duen garrantzia curriculumaren garapen egoki batean. Hala ere badira Euskal Herrian hainbat esperientzia ezberdin hezkuntza komunitatearen parte-hartzea bideratzeari begira. Batzuk komunitate osoaren ikuspegitik egin dira, beste batzuk herri gisa eta badira batzuk sektorialki egin direnak.

Nire ekarpena azken honen bidetik doa, ikasleen parte-hartzea sustatzearen ikuspegitik. Euskal curriculumum ez da osoa izango hezkuntza komunitatearen sektore guztien parte-hartzea ez badu bultzatzen. Era berean ez da osoa izango ikasleen eskubideak aitortzen eta garatzen ez baditu, eta eskubide horietako bat hezkuntza prozesuan subjektu izateko eskubidearena da. Horren harira hainbat ekarpen egin dira Euskal Herrian eta baita zenbait esperientzia martxan jarri ere. Nire ekarpena horren haritik ere joango da.

Aipatu nahi dudana lehenengo proposamena Gazte Mugi!n eginiko “Euskal Curriculumari ikasle ekarpena” testuan jasotakoa da. Bertan egiten den lehenengo baieztapenak argi uzten du testuaren nondik-norakoa eta era berean interbentzio honena: hezkuntzan estamentu ezberdinak daude eta bakoitzari dagokio bere burua antolatzea, testuak ikasleena antolatzeko baino ez du jardungo. Hortik eratoritzen da niretzat garrantzitsua den bigarren baieztapena: sektore bakoitza bere buruaren jabe da eta beraz ez dagokio beste inongo sektoreri besteen antolaketa zehaztea (ikasleek ikasleena, gurasoek gurasoena). Hirugarren baieztapenak parte-hartzea demokrazia parte-hartzailearen printzipioetan sostengatu behar dela dio.

Hiru baieztapen hauetatik ikastetxearen antolaketa berri bat eratoritzen da. Ikastetxe bat non estamentu bakoitzak bere burua antolatzen duen eta zuzendaritza markoak guztien arteko adostasunak bilatu eta desadostasunak konpontzeko lekua baino ez diren. Zuzendaritzaren arduretariko bat, beraz, estamentuen arteko bitartekaritza izango da, hala nola, egon daitezkeen arazo eta egoera ezberdinen informazio elkartrukatzea.

Ikasle ekarpenak honako proposamena egiten du ikasleen antolaketaren inguruan:

“Ikastetxean, ikasleak antolatzeko bi marko egongo dira. Lehenengoak ikasleen osotasunak parte hartuko du zuzenean: Ikasle Biltzarra. Biltzarrean ikasleoi dagozkigun arazoak eztabaidatu eta erabakiak hartuko dira. Ikasle Biltzarrak ikasleonek erabaki marko gorena izango da.

Bertatik ikasle ordezkari bat hautatuko da, bi ardura izango dituena. Lehenengoa ikasle biltzarrearen eta beste sektoreen arteko mintzakide izango da. Bigarren ardura, ikastetxean egongo den bigarren markoa dinamizatzea izango da: Ikastetxeko Ordezkarien Asanblada. Asanblada honetan ikasgela bakoitzeko ordezkariak egongo dira. Hauek, ikasgela bakoitzeko biltzarrean aukeratuko dira. Asanblada honetan informazio elkartrukea eta arazo zehatzen inguruko erabakiak hartuko dira. Biltzarrak hartzen dituen erabakiak ere kudeatuko ditu.”

Gainera harantzago doa eta etorkizunean ikastetxeetako ikasle biltzar horiek maila nazionalen nola antolatu ere proposatzen du:

“Ikastetxe bakoitzaren antolaketaz gaindi nazio-antolaketa bat ere bilatu beharko da. Estamentu bakoitzak bere Nazio Biltzarrak antolatu beharko ditu, nahiz eta bakoitzak formula hau nola egiten duen erabakitzea ez dagokigu ikasleoi.

Ikasleonek nazio-antolaketa bi maila ezberdinetan antolatuko da. Alde batetik ikasleonek nazio-kongresua izango denean: Euskal Ikasleonek Biltzar Nazionala. Bertara ikastetxe bakoitzeko ordezkariak agertuko dira. Ikastetxearen tamainaren arabera kopurua eta formula ezberdinak bila daitezke (adibidez Unibertsitateen fakultate edo karrerak...).

EIBNk ikasleoi dagozkigun erabaki nazionalak hartuko ditu. Hartu beharreko erabaki hauek euskal ikasleonek problematikari erantzun beharko dio. Antolaketa nazional honek bere

Exekutiboa izango du. Exekutibo hau Ikasle Kontseilu Nazionala izango da. Ikasle Kontseiluak EIBN deitu eta bere erabakiak kudeatzeko ardura izango du. Bertan tratatu beharreko gaiak ere IKNk proposatuko ditu. Gune honek ere Demokrazia Partehartzailearen printzipioetan oinarrituta egongo da, beraz proposaturiko gaiak ahalik eta irekien izan behar dute eta ikasle guztion oniritzia jaso beharko du EIBNn bertan. EIBNan hitz egin beharreko gai hauek ikastetxeetako biltzarrek plazaratutako arazoei erantzuten saiatu beharko da.”

Utopikoa dela dirudi, eta hala da. Baina zer da bidea ortzi-mugarik gabe? Zer da basoa sastrakarrik gabe?

Hala ere ez da hain utopikoa. Euskal Herrian egon dira horrelako planteamenduak garatzeko saiakerak, beti ere ikuspegi integral bat garatu gabe. Hiru adibide jarriko ditut. Lehenengoak Leioako Arte Ederren fakultatean egondako asanbladari dagokio. Bigarrenak Euskal Ikasleon Biltzar Nazionalari eta hirugarrenak MUn eginiko GIP prozesuari erantzunez sorturiko Ikasle Biltzarrak.

Leioako Arte Ederren fakultatea munduko Arte Eder fakultate gehien antzekoa da: margoa, artea, sormena eta pentsatzeko aukera egoten da. Honek buruari eragin eta antolatzeke grina sortu ohi du eta askotan beste fakultateetan (batez ere ikasketa teknikoak egiten direnetan) *hippy* edo/eta *freaky* moduan hartuak izaten dira. Baina ez da horrela. Leioan dagoen Arte Ederren fakultatean urte luzez funtzionatu zuen asanblada batek. Bertan fakultateko erabakiak hartu eta ordezkariak ofizialek at geratzen ziren botere-gune alternatiboak sortzen ziren. Asanblada honek asanblada guztiek dituzten arazoak gainditu eta benetako dinamikak sortu zituen. Negu Gorriak taldeak eginiko “*Hiri Gerrillaren Dantza*” abestian ere esaten du “*Arte ederretakoak ari ziren protestaka Irakasle euskaldunak behar zituztela eta Manifestazio buruak txakurrekin topo egin Ez jarraitu zergatik? Haatik!*”. Momentu honetan fakultate hau da UPV/EHU Ikasle Kontseilurik modu ofizialean ez duen bakarra, urteetan zehar asanbladak kudeatu baititu erabakiak.

Bigarren adibideak Euskal Ikasleon Biltzar Nazionalari, edo nazionalari, 4 egon baitira orain arte, dagokio. EIBN hau ez da goian aipatutakoaren berdina, erreflexio honen aurretik abiatzen baita. Momentu honetara arte egon diren 4 Ikasle Biltzarretan gai ezberdinak landu dira. Lehenengoan autoritarismoaren aurkako borrokaren nondik-norakoak zehaztu ziren. Bigarrenean ikasleen prekaritatearen aurkako plataforma bat sortzea erabaki zen, Duina (bere garaian Ikasle Koordinadora izena zuen eta gaur egun gazte koordinadora dena). Hirugarrenean euskalduntzearen aldeko apustuan ikasleria sartzeari erabakitzen da eta bertatik Euskal Adarra jaio, euskal curriculumaren aldeko borroka aktibatzea eta eskolak euskaldundu behar duela aldarrikatzen du ikasleri osoak lehenengo aldiz. Azkenak Eskola Euskalduntzeko Ikasle Alternatiba onartzen du, euskalduntzearen eta curriculumaren aferari erantzuna ematen zion plan estrategikoa.

Ikusten den moduan EIBNak ez dira ahuntzaren gaueko eztula izan. Bertan hartutako erabakiak ehunka ikasleren artean hartzen ziren. Prozesuetan ikastetxez-ikastetxe eta fakultatez-fakultate eztabaidak ematen ziren eta laugarrenaren kasuan batzar nazional bat egiteaz gain herrialdeko Biltzarrak ere egin ziren, guztira 1.000 ikasle inguru bilduz Ikasle Alternatibaren onarpen prozesuan. Garrantzitsuena ikastetxeek euren ordezkariak bidaltzeko aukera zen, hau da, ikastetxean hitz egindakoa maila nazionalean onartzeko ematen zen aukera.

Komentatu nahi dudan azkeneko esperientzia Mondragon Unibertsitatean emandako GIP prozesuan ikasleen ordezkariak eskasari erantzuteko sortzen den Ikasle Biltzarraren esperientzia da, eta aurretik egondako “Ikasle Ekarpena”ri erantzuten dion lehenengoetarikoa izanik, esperientzia “moderno” dela esan ahal izango genuke.

Hiru dira Ikasle Biltzar honek jartzen dituen helburuak:

- “ - Ikasleen gogo eta interesei erantzuten dioten ekimenak erabakitzea*
- Ikaslego-Zuzendaritza arteko transmisio lana egitea*
- Kontseilu Errektorean eta Batzar Orokorrean ikasleen ordezkapena eta politika ildoen finkapena”*

Hau ziurtatzeko ondorengo osaketa proposatzen dute:

“Gutxienez bi ikasle egon dira gela bakoitzeko eta hortik aurrera hamabost ikasleko pertsona bat. Ordezkariek (eta hauen ordezkioak) gelan egindako bozketa bidez aukeratuko dira. Bozketan kontutan hartuko da borondatez parte hartu nahi duenik badagoen, baina hautaketa beti bozketaren ondorioz egingo da. Ordezkariek bi urtez hartuko dute parte gutxienez eta berriz hautatuak izateko aukera egongo da.”

Osaketa hau, ikusten den bezala, goian proposatuaren ildotik doa, nahiz eta ez izan guztiz berdina eta MUK dituen berezitasunei moldatuta egon.

Funtzionamenduari dagokionez, argi eduki behar dugu Unibertsitate bat ez dela ikastetxe txiki bat, non ikasle guztiak erraz bil daitezkeen. Mondragon Unibertsitateak gainera bi herri ezberdinetan ditu kanpusak (Arrasate eta Eskoriatza) eta honek ere bilerak egitea zailtzen du. Horregatik karrera bakoitzak bere ikasle biltzarra izatea proposatzen da eta hauen artean komunikazioa egotea.

“IB-ean talde eragilea egongo da dinamizazio lana egiteko eta IBk berak erabakiko du zeinek osatuko duen talde hori.” Ikasle Biltzar hau hilabetean behin bilduko da eta urtean behin gutxienez ikasle guztiak bilduko dira asanbladan, Ikasle Biltzarrak galdeketak eta bestelako ekimenak proposatu eta martxan jar ditzan.


“IBk ekimenak, proposamenak etab... gelan aurkeztu eta eztabaidatzeko eskola orduak hartuko dira. Ordua alde zehatzetik zehatzeko da eta tarte horren helburua eztabaida sortzea izango da. Desadostasunetatik proposamenak planteatu beharko dira eta ondoren ordezkarien bidez IB-ak kontutan hartuko ditu.”

Ikusten den bezala Ikasle Biltzar honen funtzionamendua ahalik eta horizontalen eta demokratikoen izateko apustua egiten da. Honen isla izan daiteke Ikasle Biltzarrean dauden ordezkarien lana “desadostasunetatik proposamenak” egitea dela, eta gero proposamen hauek martxan jartzea.

Ikasle Biltzar honek 2004/2005 ikasturtean hasi zuen bere bidea eta gaur egun errealitate bat da Mondragon Unibertsitatean.

Ikusten den bezala parte-hartzearena ez da gai makala. Ikastetxearen beraren erroak eraldatzea eskatzen du, iraultzea eta eraikitzea, hausnartzea eta garatzea. Baina Euskal Curriculumak martxan jarri nahi dugun honetan herritarren ekarpena jasotzea bezain garrantzitsua da hezkuntza prozesuan dauden sektore guztien inplikazioa modu demokratiko eta justu batean jasotzea. Bestela ez da beste testu bat baino izango.

Ikasleen partehartzea unibertsitatean → zalantzak



Proposamena garatu: helburua, osaketa eta funtzionamendua

Gelatan proposamena eztabaidatu, onartu

IB OSATU → KEan aurkeztu
Zuzendaritzari aurkeztu

* gelako delegatuak = gelako egunerokotasunean sortutako gorabeherak kudeatzeko (ordutegi aldaketak, azterketa datak...)